


1958-2008. 50 AÑOS DEL NACIMIENTO DE LA PLAZA DE IBARROLABURU (BARRIO DEL PUERTO).

Amagoia Etxeberria, Miren Garcia eta Alfredo Moraza



Cauce del Urumea navegable en la antigüedad con los distintos embarcaderos señalados.

Portuaren historia.

Gaur egun Portu auzoa Ibarrolaburu Plaza inguruko etxaldearekin lotzen da. Hala ere, haren jatorria askoz zaharragoa da eta haren izeanak berak dioskunez, Urumea ibaieren ibilguan zehar salerosgaien garraioa behinola errazten zuen ontziraleku zahar batekin dago erlazionaturik. Ibaiek denbora zaharrean funtsezko zereginha bete zuten Gipuzkoako lurraldoko merkatariatzasarean, horien nabigagarritasuna nahiko mugatua bazeen ere. Urumea ez da arau honen salbuespena; areago, XVIII. mendean Fagollaga inguruataraino zen nabigagarria. Lehorreko halamoduzko bide-sarea eta ibai-bideak elkarrekin harremanetan jarri eta, gure kasu zehatzean, Donostia hiriburuarekin (edota alderantziz) komunikatzeko bide-sistemari arinen eta azkarrena bilakatu zen. Garai bateko trafiko arin horren oroitzapen ugari geratu zaizkigu inguruetaiko toponimian bertan: *Itsaspuru* (itsasaldiaren punturik gorena), *Karabele* (karabelak edo belaontziak igarotzen diren lekua), zirrindolak zeinetatik ontziak amarratzen baitziren eta orain dela asko ez dela hainbat baserritan (*Aldagaia* edo *Piper-Enea* baserrietan, kasu) zintzilik ikus zitezkeenak edo *Lonja* etxearena, zeinaren izeanak oso aztarna argia ematen baitigu bere jatorriari buruz.

Historikoki hainbat izango dira Urumea ibaiak bere ibilbidean zehar edukiko dituen ontziralekuak, esaterako, Osiñaga, Fagollaga, Arbizu-Portu edo Karapoten ditugunak, Hernani aldekoak bakarrik aipatzeagatik. Baina horietako batek bereziki bideratuko du inguruko trafikoa, denborak lagun izena hortik zuen auzunean dagoenak, hain zuzen.

Ibai-portu hau Lonja baserritik hurbil kokatuko da, bertako ontziralekura mota guztietako salerosgaiez zamaturiko txalupak iristen zirelarik (arraina, laboreak, ardoa, jaki gazituak, e.a.) eta ibarreko burdinoletan manufakturatutako burdinarekin urari beheititxultzen ziren. Zalantzak gabe, etxe lonja edo erreenteria horietako baten aurrean gaude, non hainbat produktu biltegiratzen baitziren, geroago ontziratuak edo gurdizain eta mandazainen bidez euren azken destinora igorriak ziren arte. Lonja hauetan zerga ederren nahitaezko kobraintza egiteari ere ekiten zioten, eta horregatik askotan probintziako agintariekin kontrolaturik egoten ziren, edo Hernaniren kasuan bezala, Udalak berak kontrolatzetxiz, zeina arduratzetxiz salerosgaien garraioagatiko zerga horiek kobraintza, kontzeptu horren pean diru-zenbateko jakin bat udal kutxei entregatu behar ziolarik. Ekandu horretaz jasota dagoen albisterik zaharrena 1580. urtekoa da, joan den XIX. mendea ondo aurreratuta egon arte indarrean iraun zuelarik.

Lan hori aurrera eramateko azpiegitura oinarrizko batzuk izaten zituzten, besteak beste, ontziralekuak, biltegiak, e.a. Salgaiak kargatu eta deskargatzeko lanak egiaztatzea, pisatzea eta zegozkien zergen kobraintza ere bertan egiten ziren.

Urumean nabigatu tamaina handiko ontziak ikusi nahi izan dituztenen amets poetikoen gainetik, errealtitatea askoz biribilagoa da, merkataritza-trafiko guzti hori "ala" txiki batzuen bidez eramaten baitzen aurrera. Alak hondo laueko gabarra antzekoak ziren, oso zabalak, eta sakonera txikiko uretan nabigatzeko egokienak ziren, hondoa jotzeko beldurrik ez baitzegoen. Ibaian gora edo behera ibiltzeko giza indarraz edo, gizakirik ezean, zamari eta idien laguntzaz baliatuz.

Mendeak igarotzearekin, ibaibidea jalkin naturalez (lohiak, hareak, errekarriak) betetzen joan zen, ibilguia gero eta gehiago itxiz eta nabigaziorako erabilezin geratuz. XIX. mendearren erdi aldera, bai ibilgailu-zirkulaziorako bai tren-biderako komunikabide-sare arinago bat garatu zutenean, ibai bidezko komunikazio-sistema tradizional honiek bere zentzuia galdu zuen.

Ibai-merkataritza handi bat buruzko istorio hauek bizi gareneko etxeek betetzen dituzten 50 urteek baino nortasun eta aberastasun askoz handiago batez hornitzen dute Portu auzoa.

El 22 de agosto de 1958 se procedía a inaugurar oficialmente el grupo de casas conocido con el nombre de "San Juan Bautista", grupo que conformaría el núcleo principal de la actual Ibarrolaburu plaza y del barrio del Puerto. Al acto, celebrado a las 12 del mediodía, acudieron las principales autoridades del régimen franquista del momento, entre los que se encontraban el Gobernador Civil de Gipuzkoa y Jefe Provincial del Movimiento (Sr. del Moral), el Vicesecretario General del Movimiento (Alfredo Jiménez Millas), el Director General de Vivienda y Jefe Nacional de la Obra Sindical (Luis Matos), el Obispo de la Diócesis (Doctor Font Andreu), el Delegado Provincial de Trabajo (Sr. Gandasegui), el Jefe Provincial del Sindicato de la Construcción (Sr. Sagarzazu), el Coronel Jefe de la Frontera Norte (Sr. Ortega), el

Coronel de la Guardia Civil (Sr. García Lasierra) junto al Alcalde de Hernani (Tiburcio Aguirre) y otras autoridades locales y policiales.

La "jornada de trabajo" de esas autoridades fue sumamente estresante ese día ya que junto al de Hernani se inauguraron asimismo otros grupos



Entrada de las autoridades el día de la inauguración, el 22 de agosto de 1958.



Bendición del Grupo, por D. José Elgarresta.



Entrega de llaves.



Imagen del barrio antes de la construcción del Grupo.

de casas semejantes en otras localidades como Irun, Tolosa, Elgoibar, Orio y Arrasate. En total se hicieron entrega de unas 520 viviendas en todo Gipuzkoa.

La historia del Grupo San Juan Bautista de Hernani se había iniciado unos tres de años antes cuando en julio de 1954 la "Constructora Asistencial Nuestra Señora de Aranzazu" presentó ante el Ayuntamiento hernaniarra una solicitud para proceder a la construcción de un grupo de casas protegido en el barrio del Puerto. El proyecto estará firmado por los arquitectos Isidro Setien Alberro y Juan Miguel Rezola Azpiazu, y contemplaba la edificación de un total de 71 viviendas y 7 locales comerciales sobre una parcela de unos 6.000 metros cuadrados. Esta parcela había sido recientemente adquirida con ese fin en una zona anteriormente ocupada por huertas. En la zona apenas si existían una serie de pequeñas casas y caseríos, muchos de los cuales aún se conservan (Aldagaia, Egañenea, Sutegi Zahar, Lonja o Portuetxe entre otros) y otros ya desaparecidos.

Esta promoción, al igual que las llevadas a cabo en esas otras poblaciones, estará auspiciada por las autoridades franquistas con el objeto de favorecer la construcción de viviendas y mejorar las condiciones de habitabilidad en aquellas localidades que presentaban un amplio desarrollo industrial, intentando con ello paliar el creciente problema de la falta de vivienda. La promoción se acogió a la Ley de Viviendas Protegidas de 1939, teniendo una gran acogida entre los vecinos de la zona, y de localidades más alejadas. Ante la gran demanda se procedió al sorteo de las viviendas, debiendo de adelantar cada uno de los beneficiarios cantidades periódicas de dinero para poder llevar a cabo primero, la compra de la parcela y posteriormente, la propia construcción de las viviendas. Las rentas de amortización rondaron entre las 268 y 296 pesetas según cada caso específico.



FACHADA E.

Obtenidas todas las autorizaciones preceptivas (de la Diputación Provincial, de las Delegaciones nacionales de Vivienda y Sanidad, etc.) el Ayuntamiento otorgó finalmente en pleno celebrado el 11 de agosto de 1955 la autorización para comenzar las obras, con lo que ese mismo año dio comienzo la construcción de los bloques de viviendas. De esta labor se encargó la empresa constructora de origen catalán Compañía Constructora, S.A. (E.C.I.S.A), siendo precisamente éste su primer trabajo realizado en Gipuzkoa. El presupuesto final de la obra ascendió a 6.320.000 pesetas, de las de la época. El proceso de obra fue lento y muy costoso, experimentando a lo largo del mismo numerosos parones, con la lógica desesperación de aquellos que habían invertido sus ahorros en esas casas. Finalmente, el propio Ayuntamiento hubo de contribuir económicamente para poder concluir la obra, gracias a la donación efectuada por la viuda de Javier Ibarrolaburu. Este tolosarra vino a residir de pequeño a Hernani, y tras su fallecimiento en 1954 su viuda, María Cruz Lasheras, hizo entrega al Ayuntamiento de una cantidad de unas 50.000 pesetas "para la construcción o mejora de un pabellón que sirva para duchas y algún baño de servicios económicos en beneficio de la clase trabajadora. Si este servicio ya estaría establecido, dicha donación podría aplicarse como ayuda a la construcción de viviendas económicas para obreros". La Corporación, en reunión celebrada el 1 de diciembre de 1954, acordó destinar esa cantidad a la nueva promoción que se iba a llevar a cabo en la zona del Puerto, dando el nombre del difunto a la nueva plaza.





En esta fase se edificaron un total de tres bloques diferenciados, adoptando una disposición específica para garantizar la protección del viento (estos bloques se corresponden con los actuales Ibarrolaburu plaza nº 1 a 11). En el espacio central se generará lo que actualmente se conoce precisamente como Javier Ibarrolaburu plaza, mientras el resto del espacio permanece ajardinado. El acceso a este grupo de viviendas se hará directamente a través de la carretera que bajaba del Casco, habiendo previamente de expropiar y derribar una pequeña tejavana anexa a la casería Aldagaia.

Las casas a construir, según el proyecto, dispondrían inicialmente de cocina-comedor, aseo y tres habitaciones, con plantas de entre 68 y 86 m². En las crónicas de la época se decía de estas casas que "*las fachadas y la urbanización son sumamente acertadas y atractivas. Las viviendas, aparte de otros detalles, poseen agua caliente y fría*"; un aspecto éste último que suponía una gran novedad y avance en la época. Fue tal el deseo por ocupar aquellas casas que muchas de las familias beneficiarias entraron ya a vivir en las casas con unos simples colchones en el suelo y aún sin disponer ni de agua ni electricidad; éstas llegarían días después. En los bajos fueron abriendose diferentes negocios (droguería, tienda de ultramarinos, carnicería, pescadería, taberna,...), algunos de los cuales aún siguen en funcionamiento.

Pero, la bonita realidad dibujada por las crónicas parece ser no fue sino otra muy distinta. Detrás de aquellas grandes palabras pronto empezaron a aflorar los problemas. Al poco de ser inauguradas las viviendas comenzaron las quejas ya que los acabados no eran "tan excelentes". Las viviendas se entregaron en unas condiciones muy deficientes (sucias), se caían los azulejos de las cocinas y baños, en las paredes aparecían grandes manchas de humedad, en un bloque llegó incluso a partirse una viga del portal, etc. Muchas de las familias, con el fin de disfrutar de unas condiciones mínimas de comodidad, hubieron de hacer obras de reforma al poco tiempo de entrar en ellas.

No obstante, el principal problema no vino dado tanto por las propias viviendas sino por la deficiente urbanización de la plaza resultante. Inicialmente esta obra había quedado a cargo del Ayuntamiento, si bien la zona presentaba una serie de problemas estructurales de muy difícil resolución. La instalación del alumbrado no se efectuó hasta la primavera de 1959, y la misma dejaba mucho que desear, al igual que el alcantarillado que solía estar frecuentemente atascado. Su ubicación en una zona baja de la ladera y junto a un pequeño riachuelo hacia que en períodos de fuerte precipitación la plaza quedase completamente anegada de agua como bien se acordarán muchos de los vecinos. Una situación

que se agravaría aún más por el continuo trasiego de camiones con destino a las obras de las otras casas que se encontraban en construcción.

Las quejas de los vecinos ante el Ayuntamiento fueron constantes, e incluso taxistas, médicos o practicantes se negaban a entrar en la plaza convertida en un gran cenagal, llegando en ocasiones a tener los propios vecinos que llevar a los enfermos en brazos por que no podía entrar la ambulancia hasta la misma. El malestar creado entre los vecinos llegó a oídos de una de las principales figuras políticas del momento, el Delegado Provincial de Sindicatos (Francisco J. Aguirre Tellería), quién tomó cartas en el asunto y se puso en contacto con las autoridades locales. En un escrito bastante contundente enviado por este Delegado en mayo de 1964 al alcalde Tiburcio Aguirre, el mismo que había inaugurado el Grupo, se señalaba textualmente que la plaza "*está hecha una verdadera porquería*", presionándole para que tomasen las medidas necesarias para corregir el problema y hacer que el "*barrio sea limpio y adecuado para vivir personas, pues en la actualidad da que pensar si estará hecho para cuadrúpedos*". Las medidas parecen que dieron efecto ya que inmediatamente se comenzó a elaborar el proyecto de reforma y mejora de la plaza, aprobado definitivamente en agosto de ese mismo año de 1964. Las obras consistieron básicamente en relevar la cota de la plaza unos 70 cm. y en la ejecución de un nuevo sistema de alcantarillado.

Un par de décadas después, con el grupo total de casas ya concluido, se volverá a reformar esa plaza cambiando los sentidos de aparcamiento, la ubicación del área de juego, etc. hasta alcanzar el aspecto que actualmente posee. Medidas que se completaron con la canalización de la problemática erreka que a partir de entonces no ha vuelto a provocar nuevos daños.

La promoción llevada a cabo por las autoridades del Movimiento tuvo pronto su eco en la iniciativa privada, y a esas primeras casas se les fueron



A pesar del proyecto de mejora y reforma de la plaza, durante muchos años el barrio siguió inundándose (caso de agosto de 1983).



Imagen aérea del barrio en 1977.

uniendo casi inmediatamente otros nuevos bloques de viviendas hasta conformar la actual barriada. El proceso de ejecución de esos nuevos bloques chocará frontalmente con la oposición de la Delegación Provincial del Ministerio de Vivienda, quién una y otra vez reiterará al Ayuntamiento que antes de promover cualquier nueva construcción en la zona era necesario aprobar un Plan Parcial de Ordenación de la misma. El Plan General de Hernani había definido el desarrollo de la zona como una nueva *Ciudad-Jardín* pero la presión inmobiliaria terminó finalmente por ganar la partida y la zona se fue urbanizando un tanto caóticamente sin atender a planificación alguna.

Pocos meses antes de la inauguración oficial del Grupo, en junio de

1958, Alberto Mujika González y Alberto Fernández Lejarreta presentarán una propuesta para ejecutar una nueva casa en el espacio ubicado entre las casas del Grupo y la regata. A pesar de las primeras negativas municipales a su ejecución por las anteriores presiones de la Delegación Provincial, finalmente se autorizó su ejecución, estando concluida para 1962; esta casa será el actual número 14 del Barrio del Puerto. Las siguientes construcciones vendrán a ocupar diferentes parcelas en ese mismo sector del barrio, siendo todas ellas obra del tandem formado por el promotor Francisco Apecechea Zubieta y el arquitecto Juan Miguel Rezola Azpiazu, el mismo que había diseñado el Grupo. En 1963 se inaugurarán los bloques correspondientes a los actuales números 13 (en mayo) y 12 (en

octubre), y dos años después, en 1965, el bloque formado por los números 15 y 16. En la mayor parte de los casos el constructor fue severamente multado por iniciar las obras sin disponer de licencia alguna pero todas ellas fueron finalmente ejecutadas. Este proceso de construcción culminaría, en cierto modo, con la ejecución de los actuales números 5 y 6, sobre el solar de una pequeña construcción abandonada, siendo inaugurada la casa en 1972.

... En definitiva, han transcurrido ya 50 largos años de vida de un grupo de viviendas que dieron cuerpo a un barrio de larga historia. Además, esas casas tienen algo mucho más valioso que el "agua caliente y fría" de la época, los 250 vecinos que las habitan.

Pedro Aparicio (66 años).



Pedro Aparicio: "...me llamaban algunas veces txurriano, pero yo les decía: ¡eh, si yo puedo ser más vasco que tú!".

Pedro nació en Zazuar (Burgos) y le gusta decir que *¡mi pueblo tiene las mismas letras que Zarauz, pero con el orden cambiado!*

En la familia de Pedro eran cuatro, y fue el hermano mayor el primero en venir a Euskal Herria ya que aquí fue donde le tocó hacer el servicio militar (el hermano mayor de Pedro era el padre del que hoy lleva el bar Shangai). De Burgos a Hernani, luego fue su hermana quien vino, y finalmente Pedro y su madre, viuda dos años antes. Pedro tenía entonces 11 años y recuerda como en un principio vivieron en el caserío Aranburu, de

Urnieta. El caserío estaba dividido en varias viviendas y no trabajaron en sus labores ya que no tenían ganado... Después, durante dos años estudió en La Salle de Irún.

Cuando se realizó el sorteo de las viviendas del barrio, a ellos les tocó el segundo piso del bloque nº 10. El barrio no le era desconocido a Pedro: "Vivíamos en Urnieta y cuando empezamos a trabajar, por no andar dando vueltas de Urnieta a Hernani y de Hernani a Urnieta, alquilamos dos habitaciones en casa de Adela: la madre dormía en una de ellas y los hermanos en la otra".

El piso que les tocó le pareció bueno a Pedro pero con el tiempo, tuvieron que hacer algunas reformas. Pedro tenía 16 años cuando vinieron a vivir al barrio, y no conocía a nadie. Aún así, de su edad ya había una cuadrilla pero poco tiempo le quedaba para la diversión ya que desde joven, como nos dice, comenzó a trabajar. "Una de mis mayores aficiones era andar en bicicleta. Me gustaba mucho, a todos los sitios iba en bicicleta. Los jueves había baile en Hernani, los viernes en Lasarte pero yo iba también a otros sitios: a Goizueta, a Orio, a Zarauz. En el barrio también jugábamos. La plaza muchas veces estaba llena de barro y no se podía andar muy bien pero todavía recuerdo como jugábamos a pelota entre las paredes de la mercería".

A su mujer la conoció en Soria, durante un viaje que allí realizó. Su mujer tenía una hermana ya en Hernani y enseguida se animó a venir. Con el tiempo fueron formando la familia, tuvieron cuatro hijos, de los que dos fallecieron años atrás.

Mientras vivían en Urnieta algún que otro desprecio o... le tocó sufrir a Pedro por aquello de que era nacido en Burgos, pero como él dice esas situaciones fueron bastante puntuales. "Me llamaban algunas veces txurriano, pero yo les decía: ¡eh, si yo puedo ser más vasco que tú... La rama originaria de mi apellido viene de las Encartaciones!".

En el barrio, sin embargo, situaciones como esas, dice, no le ha tocado vivir, y recuerda el buen ambiente que en él se vivía: bastantes niños, jóvenes también,... Además, es de la idea de que las numerosas inundaciones que ha padecido el barrio, ayudaron a crear un ambiente de solidaridad entre los vecinos. En una de esas, recuerda como salvó un SEAT 600; como el coche estaba casi totalmente cubierto por el agua. "Me anime a arrancarlo, ¡hasta la ventana de la casa de los Etxeberria llegaba el agua que salía por el tubo de escape!".

Cuando le preguntamos por los problemas que en un primer momento presentaban las infraestructuras con las que contaba el barrio nos contesta que tenía 16 años y que entonces no reparaba mucho en ese tipo de cuestiones. En cambio, recuerda como se llevaron a cabo las obras que después se realizaron en la plaza: "Cuando la plaza aún pertenecía a la Cooperativa, al Grupo San Juan Bautista, siempre estaba llena de barro. Colocamos dos pivotes para que los camiones no pudieran pasar y aparcar, y para que no dejaran todo hecho un cristo. Los niños parecían unos 'conquistos' cuando allí jugaban. Finalmente, se dio la plaza al Ayuntamiento, no daba más que gastos".

Se han hecho más de una obra en el barrio, entre todos: "Lino nos ponía a todos a trabajar. Nosotros a sus órdenes. El nos dirigía cuando echamos hormigón a toda la vuelta de la plaza".



Rosario Goikoetxea, Roxarito (79 urte).

Roxarito Goikoetxea: "Hasieran Joxe Marik eta biok koltxoia lurrean genuela lo egiten genuen, baino begira' ¡contigo pan y cebolla!' esan zidan eta egia esan, oso pozik bizi izan ginan elkarrekin".

Joxe dantzak ezagutu zuen. 20 eta 24 urte zituzten. Zikuñagako festetan dantzan aritu ondoren, bizkletako paseo bat baino gehiago egin zituzten elkarrekin. Bere aitak behin Errekaldeko ingurueta "harrapatu" zituen eta "Balantxako kaldereruen" semeak langile fama ona zuela eta, "onarpena" eman zion.

Irigoyenen parean zegoen "Txintxon" (Zintzotasuna zineman) ospatu zen etxeen zozketa gogoan du oraindik. "Sorteoan juntatu ginen 72 bizilagunak. Horko izkinan bizi den Nievesek disgusto ederra hartu zuen bere alaba ttikienak papera atera zuenean eta bajua tokatu zitzaiola jakin zuanean. Neri 2. pisuan tokatu zitzaidan".

Sindikatuan enteratu zen etxeak egingo zituztela. Baino oso luze egin zen etxeak eman-hartzeko denbora tarte: "Zozketa eta gero, bagenekin zein etxe zen bakoitzarena baino giltzarik ez ziguten ematen. Ni bitartean kalean bizi behar izan nintzen kriston zoko-zuloan, Onyin pare horretan. Ni ohitura nengoen gurasoentzat, Papelerako harten, uraren kanala ondoan genuela, uraren soinua entzuten eta libre eta kalean eta han, herrian, zoko zulo harten... Neretzat etxe hauetara etortzea gloria izan zen..." "Hau oasis baten modukoa zen...". "Ni amarengana joaten nintzen oinez egunero Zikuñagara eta hor ikusten nuen obra aurrea zihuala, eta ez zihuala... Ez zegoen dirurik eta, obrak geldituta egon ziren denbora askoan... Azkanean Udaletxeak jarri zuen dirua bukatzeko. Uste dut Setien eta Rezolak bukatu zituztela etxeak".

Sindikatuak agintzen zuen zenbat diru eman behar zen kuota bakoitzean. Orain 3.000, orain 2.500, orain zorrak kitatzeko 40.000 gehiago... Erreziboak ere gordeta omen ditu nonbait. Pixkanaka pagatu zuten etxea: "gizon ttiki bat etortzen zen hilero, uste det, Artes y Oficioseko konserjea zela gizon hau eta 300 pta. kobratzen ziguten hilero".

"Etxea hartu genuenean, giltzak eman zizkigutenean.. Jesus! A ze disgusto! Dena zikin zikiña zegoen. Komuna zerri egina zegoen...". Sukalde txikia tokatu omen zitzaien Joxe eta Roxaritorri, baino ederki moldatu izan ziren denak bertan bizitzen. Alaba, ama eta ahizpa bat ere egon izan ziren etxeen bizitzen. "Apopilarik ez genuen, galerazia zegoelako, ez zuten uzten sindikatukoak eta...". Maria Antonia alabatxoak 3 urte eta erdi zituen auzora bizitzera etorri zirenean. 3 logelakoa zen etxea eta sala, sukaldea eta bainua ere bazituen. "Su aurrean azulejatuta eman ziguten baino buf... Nik gero obra egin behar izan nuen, dena irekita ez zitzaidalako gustatzen nola zegoen..."

Roxaritok aitortzen du auzotar batzuek hartutako lanari esker lortu zutela azkenean etxeak eskrituratzeko eguna jartzea. Egun horretan anekdota kuriosoa gertatu zitzaien Roxaritorri auzora etorri berriak ziren Guardia Zibilekin. "Eskritura gabe denbora asko egon ginan, etxeak ez ziren erabat gureak, ez zitzaien interesatzen eta! Eskriturak ordaindu genituen egunean, etorri berriak ziren goiko kuartelera Guardia Zibilak eta herrian manifestazioa egon zen egun harten. Garai gogorrak ziren eta manifestazioko mutil batzuei, baten batek, atea ireki zizkien hor karrozeriko inguruaren eta ezin guardiak mutilak bilatu... eta nik portalian topatu nituen guardiak.... ¡Métase adentro señora!, ¡Métase a su casa! esaten zidaten armakin apuntatzen, eta Joxe Mari neri erritan barrura sartzeko eta ni ezin isildu eta "¡Claro que es mi casa! ¡Ya te digo yo que desde hoy sí que es mi casa!..."

Guardia Zibilak noiz behinka jaisten omen ziren auzora, batez ere dendara eta festetan. Umeekin ere etortzen omen ziren noiz behinka jolastera... Festetan auzotar batzuek batzuetan kantatu egiten omen zieten: "¡voló! ¡voló! eta trapua botatzen genun airian... eup!"

Roxarito Kooperatibara igotzen omen zen normalean erosketak egitera baina auzoan hasieratik zeuden lokal mota guztiak oso ongi gogoratzen ditu: "Drogeria, Pepe Goenagak hartu zuen. Denda, Petra Elizondok. Taberna, Jose Mari Quemadak, oraingo Juan Carlosen aitak. Harategia Martinek eta arrandegia M^a Jesusek. Merzeria ere bazeen, ez pentsa: Errrok hartu zuen. Gerora mertzera hau tabernakoek erosi zuten eta handitu egin zuten taberna".

Oso giro ederra sortu omen zen hasieratik auzoan. Roxaritok lehenagotik ere ezagutzen zituen gero bizilagunak izango zituen asko eta asko: Manoli Makazaga, Hachen ama, Ibarzabal... Bere alaba Maria Antonia txikia zen bizitzera etorri zirenean eta lagunik ez zuen faltako auzo berrian "gazteak ginan denak eta haur asko zegon orduan barri-yuan... gurea, Otxotorenana, Javi, Irenen haur zaharrena...". Auzoan jaio zen lehenengo haurra askok dute gogoan "Manolo Ayerbe izan zen, Manoli Makazagana". Baino zoritzarrez, ume pare bat ere hil ziren hasiera harten. Roxaritok ongi gogoratzen du oraindik Cristina izeneko neskatoa: "Ama Birjinari jarritako kandillakin gonak sua hartuta hil zen gaxua. Komunioko arrokekin dago oraindik Kanposantuan".

Denbora pasarako telebistarik ez zegoen garai hartan auzoan. "Lehenengo telebista Ramoni eta horien etxeen zegoela uste dut. Hara joaten ziren gizonak boxeo eta futbolak ikustera. Eta emakumeak umeak zaintzen egoten ginan, kalean lasai asko, leihoko irekita eta kafea hartzen".

Roxarito oso emakume alaia da eta auzoaren 25 urteak ere gustura ospatu zituen. " 'Halfband' edo media orkesta hoiako bat gogoratzen dut, filarmonikakin ere ez dakit, dantzan ibili ginela bai... Paquita, Juanito Plomerona... Don Eusebio ere etorri zan festa hartara... Trukutrukun Shangai-eraino dantzan jun ginan... A ze juerga!... Kriston beroa egiten zun, hori bai! Janaria uste det ekarri egin zigutela... Kaballeteekin mahaiak montatu eta plazan ospatu genun bazkaria".

Dudarik ez dut aurtengo 50 urteak ere dantzan eta lagun arteko jai giro ederrean ospatuko ditugula, besteak beste, Roxarito bezalako bizilagunek auzoari bizitza, argia eta patxada ematen diotelako. Bejondeizula, eta mila esker.



Martín Otamendi.

Martín Otamendi: "¡Otamendi! ¡Has acertau!".

Betelun (Nafarroa) jaioa da Martin. Ofizioa etxetik zetorkion: aita tratantea zuen eta senide asko ziren etxearen eta, gertatzen zen bezala, gaztetatik lan asko egitea tokatu zaio Martini. Gaztea zela Betelun bertan muntatu zuen lehenengo harategia eta ofizioa senide bati baino gehiagorri erakutsi ondoren Betelu utzi eta Irunen hasi zen lanean.

Portu auzoko etxeak egingo zitzatela enteratu zenean Irunen zebilen lanean beste harakin batentzat. Harakin hark traspa soa oso garesti jartzen zion eta kasualitatez, Betelura familia bisitatzer Tolosa alderako trena hartzera zihoan egun batean, Erreneriako gizon batek esan zion bere kabuz harategia jartzeko asmoa baldin bazuen, aukera polita zuela Hernanin etxe berriak egingo zitzatela. Gurasoei komentatu eta 23 urterekin 8.200 pta. jarri zituen harategiko lokalean sartzeko.

Etxea lortzea ez zen hain erreza izan Martinentzat. Harategiaren gainaldeko terrazadun etxea kalean bizi zen emakume batu tokatu zitzaison baino emakume honek ez zuenez hor bizi nahi, Martin akordio batera iritsi zen emakume honekin eta bera hasi zen etxe honen kuotak pagatzen. Hala ere, ez zuen sindikatuko baimena bertan bizitzeko baina azkar asko bilatu zuen modua Martinek: "*bizilagunen firmak biltzea okurritu zitzaidan eta halaxe egin nuen tabernan!*".

Firmak bildu eta ostiral batean motorra hartu eta eguerdiko 12etan Donostiara joan zen firmak eskuan hartuta. Sr. Pro-ren aurrera joan (Sindikatuko idazkaria) eta bizilagunen artean jasotako firmak erakutsi zizkion. "*Astelehe nean, ni dendar lanean nintzela, Sr. Pro agertu zitzaidan eta '¡Otamendi has acertau!' esan zidan*". Giltzak eskutan zituen hortik gutxira. 1963a zen.

Martin beti izan da eskuzabala eta esker onekoa, eta nahiz eta ez oso argi izan Pro Jaunak operazioan norainoko eragina izan zuen, bada ezpada ere, "*bina gorringo zitzutzen pare bat dozena arrautza eta azpizuna bidali nizkion*". Hainbeste desiratutako etxea azkenean lortu zuen "*Palacio de Miraflores*" iruditu omen zitzaison etxea Martini.

Lokalagatik hilero 380 pezeta pagatzen zituen eta pisuagatik 320 pezeta. Denbora gutxira amak arreba gaztea bidaliko zuen Martinekin bizitzera "*ofizioan zerbait erakutsiko diozu zuk*" esan omen zion amak. "*Arrebak Secretariado ikasi zuen monjetan eta hemen etxearen bizi zen nirekin. Ordainetan etxea txukuntzen zidan arrebak. Karrera bukatu eta senargai jatorra bilatu zuen Iruñakoa eta Betelura bueltatu ziren*".

Etxea ez zegoen oso txukun giltzak eman zizkietenean. Martinek gogoratzen du azulejoak ukitu gabe ere erori egiten zirela askotan. "*Su zahar horietako bat genuen sukaldean, gero logelak, eta komuna... ene... dutxa-platera hain zen zikina eta itsusia...!*". Margarirekin ezkondu aurretik beraz Martinek ikaragarrizko erreforma egin omen zion etxeari, paretak botaz eta dena txukunduz: "*kalentadorea besterik ez zen gelditu*" gogoratzen du Martinek.

Harategiko lana asko gustatu izan zaio Martini. Negozioan boladak zeudela aitortzen du. Batzuetan lan gehiago egiten omen zuten besteetan baino. Jendea gora herrira ere igotzen omen zen erosketak egitera eta. "*Diru gutxi zenean zaldi haragia erosten zuten jendeak. Behikia oso garesti zegoen: 250 gramok 5 pezeta balio zuen eta ezin zen hura ordaindu, beraz zaldikia erosten zuten eta, gerora, kanpotarrekin, txerrikia eta oilaskoa sartu ziren. Ordura arte ez zen hemen txerrikia eta horrelakorik jaten. Arrautzak ere kanpokoak izaten ziren, hemengo baserrietan ez baitzeuden oilasko granjak oraindik*".

"Etxean bezala, harategian ere obrak egin behar izan nituen urteetan eta azkeneko erreforma, jubilatu aurretik egindako obra handia izan zen. Harategi ondoan zegoen arrandegia Anibali 1.200.000 pezetatan erosi eta hor obradorea jarri nuen". Ordura arte obradorerik ez zuen Martinek eta granjan isilpean lan egiten zuen txorizoak etab. egiten. "Arriatsuko granja izan aurretik, Elizatxo aldean Xamoraneko horretan, txabola pare batean txerriak hazten hasi nintzen. Behin izurrite batek ia pikutara bidali zidan dena. 4 zerri ama jarri nituen eta 60 txerrikume zituenean izurritea sartu eta dena galdu nuen. Animali guztiak lurperatu eta ukuilua uztekotan egon nintzen, baino aitak animuak eman zizkidan, dena ongi garbitzeko esan eta Oraien pentsuetakoekin nuen 20.000 pezetako zorra kitatzen lagundi zidan". Urte eta erdira aitarekin ere zorrak kitatuak zituen eta harategian fin lan egiten jarraitu zuen berak hazitako animalien haragiekin.

1968-1975 urteak onak izan zirela aitortzen du. Garai hartan Martinek Arriatsuko terrenoa erosi zuen bertan granja egiteko. Lursaila ez zuen merke erosi: 300.000 pezetatik gora ordaindu omen zuen. *"Katangan garai hartan bi pisu erosten ziren nik pagatutakoarekin"*. 34 txerrama eta 1.000tik gora oilo izatera iritsi zen momentu batzuetan granjan.

Harategian denetik saltzen zuten: berak egindako txorizo, odolkia, fama handia zuten tripakiak, arrautzak... Solda ateratzea ez zen erreza eta ordu asko ego beharra zegoela aitortzen du. *"Igandeetan ere irekitzen genuen askotan. Goizeko 6etarako mezetara joan eta 7etarako dendara. Haragi gehiena asteburuetan saltzen omen zuen. Astelehenetan etxe askotan saldarako hezurrekin konformatu beharra zegoen"*.

Askotan gainera *"japuntame!"* entzutea tokatu izan zaio Martini. Zerbait erosi eta momentuan ez ordaintza ez zen hain gauza arraroa garai hartan. *"Batzuk momentuan pagatzen zizuten beste batzuk astero (Papelerakoak eta horiek ostiraletan kobratzen zuten) eta beste batzuk ba... badakizu, askotan gehien kritikatzen zuena, zor gehien zuena izaten zen"*.

Giro ederra gogoratzen du Martinek auzoan beti. Familiako giroa zegoela aitortzen du. Jendea erosketak egitera lasai joaten zen garaiak ekarri ditugu gogora. Martinen ama, Betelun lan eta lan egindako emakumea, auzora etortzen zenean harrituta gelditzen omen zen *"... amak esaten zidan askotan 'emakume hok bizi dittuk lasai portu hon tan!'"*.

Giroa haurrek ere asko alaitzen zuten Martinen ustetan eta gogoratzen du nola egon ziren aste batzuk auzo honetan 5 ume jaio izan zirenak... *"Lehenengoa Manolo izan zen eta bigarrena Talaberana"*. Baino zoritzarrez, 14 urteko haurra obra batean nolatan hil zen ere gogoan du.

Martinan harategian txorizo eta odolkiez gain, telefonoa zegoen. Auzoan zegoen telefono bakarra zenez *"jel alca huete de todo!"* sentitzen omen zen askotan. *"Zuk pentsa, auzoan telefono bakarra eta hortxe, harategian, eta bizilagun bati familiakoek deitu eta haien etxera bila joatea ere tokatu izan zait, ez pentsa!"*. Beti bezala horrelako *"faboreei"* batzuk tamaina ezin hartu eta bati behin esan omen zion *"Aizu, nahikua dezu ya eh... ez dakit zenbat denbora daramazun hitz egiten.... haurra katarruakin dagoela eta hori dena beste batean kontatuko diozu eta benga, kolgatu ya eh..."*

Oso giro familiarra izan da beti auzo honetan bere ustez, Elizatxorekin konparatzen badugu. *"Han ez du ezerk funtzionatu: eskola, 3 taberna, dendak, arrandegia, harategia... dena zegoen, baina ez du ezerk aurrera egin. Hemen kanpoko jendea ere oso ondo integratu da. Goxo, familian. Rollo polita egon da beti. Hala ere politikak azken urteetan min asko egin dio auzoko giroari. Nire ustez auzoa maitatu egin behar da eta hori politikaren gainetik dago... dijuela politika popatik hartzera!"*.